



biratu itxaron deitu

merezi izan

balio izan

iraun

lagundu

kostatu

Dudak eta erabilera okerrak

Biratu



❖ Lurra bere ardatzaren inguruan **biratzen da**.

■ * Lurrak bere ardatzaren inguruan **biratzen du**.

❖ Hotsa entzuteaz batera, gure aldera **biratu zen**.

❖ Ordubetea 15° **biratzen da** Lurra.

■ * Ordubetea 15° **biratzen ditu** Lurrak.

BAINA:

❖ Burua **biratu nuen** haren ahotsa entzutean.

❖ Giltza **biratu nuen**.



Iraun



❖ Bilerak ordu luzeak **iraun du**.

■ *Bilerak ordu luzeak **iraun ditu**.

❖ Kutsadurak urteak eta urteak **irauten du**.

❖ Bilerak bi ordu **iraun du**.

❖ Bilerak bi ordu **iraun du**.


❖ Bilerak bi ordu **iraun du**.

■ *Bilerak bi ordu **iraun ditu**.

❖ Luze **iraun zidan** isilik gelditu izanaren damuak

❖ Buruko minak goiz osoan **iraun dit**.

Itxaron



Izen biziduna: DIOT erako aditza.

- ❖ Bi orduz **itxaron** **nizun** autobus-geltokian.
- ❖ Euriaren azpian, aterki beltz baten babesean, Jarana clubeko sarreran **itxaroten** **nion** Claudiner**ri** lanetik irtetea.
- ❖ Koldor**ri** **itxaroten** nengoelarik, atso bat hurbildu zitzaidan diru eske.
- ❖ Nor**ri** zaude itxaroten?



Itxaron



Izen bizigabea: DUT erako aditza.

- ❖ Zure **txanda** itxaron behar **duzu**.
- ❖ Inolako kezkarik gabe itxaroten **zuten** hurrengo **eguna**.
- ❖ Esklaboa bezala, atsedena irrikan dago; jernalariak bezala, **soldata** itxaroten **du**.



Balio izan

- ❖ Zenbat balio **du** liburu horrek?
- ❖ 23 euro balio **du/ditu**.
- ❖ Kalkulu zehatza egiteko balioko **dizute** datu horiek.





Kostatu



Zerbaiten prezioa.

- ◀ Zenbat **kostatzen da** autobus-billetea?
- ◀ Zenbat **kostatu zaizu** autoa?
- ◀ Zenbat **kosta zaizu** autoa?

- *Zenbat **kostatzen du** etxe horrek?
- *Zenbat **kostatzen du** Tourra etxera ekartzeak?
- *Zenbat **kostatzen digu** Administrazio Publikoan erabiltzen den software komertzialeko lizentziak?
- *Zenbat **kostatu dizu** autoak?



Kostatu

Zerbait egiteak lanak ematea.

◀ Kostatuko **zaizu** liburua irakurtzea.

◀ Kostako **zaizu** liburua irakurtzea.





Deitu

DIOT erako aditza (Heg.) zein *DUT* erako aditza (Ipar.).

❖ Txakurrari *Jai* deitu **diote**.

❖ Txakurra *Jai* deitu **dute**.

❖ Bilerara deitu **digute**.

❖ Bilerara deitu **gaituzte**.





Lagundu

DIOT erako aditza (Heg.) zein *DUT* erako aditza (Ipar.).

❖ Etxeraino lagundu **dit**.

❖ Etxeraino lagundu **nau**.

❖ Txostena egiten lagundu **dizu**.

❖ Txostena egiten lagundu **zaitu**.

Merezi izan



- ❖ Ez du merezi liburu hori irakurtze**a**.
- ❖ Ez du merezi liburu hori irakurtze**rik**.
 - *Ez du merezi liburu hori irakurtze**a**k.
 - *Ez du **pena** merezi liburu hori irakurtzea.
 - *Ez du **pena** merezi liburu hori irakurtze**a**k.
- ❖ Merezi du datu horiek guztiak aintzat hartze**a**.
 - *Merezi du datu horiek guztiak aintzat hartze**a**k.
 - ***Pena** merezi du datu horiek guztiak aintzat hartzea.
 - ***Pena** merezi du datu horiek guztiak aintzat hartze**a**k.

Merezi izan

BAINA:

- ❖ Gomendatu didaten **liburuak** merezi **du** irakurtzea.
- ❖ Familiaren **babesleek**, gaur egun ongi ezagunak baitira, liburuan beren egiazko izenez deitzea merezi **dute**.
- ❖ **Autobus-gidariak** ondo merezi **zuen** ezarri zioten isuna.

